

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO

Haurdunaldiaren BORONDATEZKO ETENDUREN

ERREGISTROAREN TXOSTENA

2010

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO

Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren

ERREGISTROAREN TXOSTENA **2010**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA

Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntzako
Saiburuordetza
Ezagutzaren Gestioa eta Ebaluazioa
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO

Viceconsejería de Calidad, Investigación
e Innovación Sanitaria
Dirección de Gestión del Conocimiento y
Evaluación

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2012ko martxo

Ale-kopurua:

50 ale

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Osasun eta Kontsumo Saila

Internet:

www.euskadi.net

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Zuzendaritza, koordinazioa eta elaborazioa:

N. Rodríguez-Sierra, M.I. Izarzugaza (info2-san@ej-gv.es)
Servicio de Registros e Información Sanitaria
Dirección de Gestión del Conocimiento y Evaluación
Osasun eta Kontsumo Saila

Diseinua eta maketazioa:

EkipoPO

Inprimaketa:


Eusko Jaurlaritzako Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

L.G.:

VI 159-2012

Aurkibidea

- 7 SARRERA
- 9 MATERIALA ETA METODOAK
- 11 EMAITZAK
- 25 IRUZKINAK
- 27 BIBLIOGRAFIA
- 29 ESKER ONAK
- 31 ERANSKINAK



1 Sarrera

Haurdunaldiaren borondatezko etendura (HBE) zaintza epidemiologikoan dago, abortua despenalizatzen zuen legea 1985ean indarrean jarri zenetik. Osasun Ministerioak, 1986ko ekainaren 16ko Agindua betez (eta, orobat, 2007ko uztailaren 27ko Ebazpenak aldatutakoak), zaintza hau bere gain hartu zuen. Horretarako, informazio nazionaleko sistema bat antolatu zuen, eta EAEk sistema horretan parte hartzen du Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroaren bidez.

2010eko uztailaren 5ean indarrean jarri zen 2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzkoa; Lege organiko horrek indargabetu egiten du Kode Penalaren Testu Bateratuko 417 bis artikulua. Lege organiko horren xedea da sexu- eta ugalketa-osasuneko oinarritzko eskubideak betetzen direla bermatzea, haurdunaldiaren borondatezko etenduraren baldintzak arautzea, eta, gai horiei dagokienez, botere publikoen betebeharrak ezartzea.

Lege horren arabera, 14 asteko epe bat ezartzen da, non emakumeek libreki eta informatuta erabaki baitezakete haurdunaldia etetea hirugarren baten parte-hartzerik gabe. Halaber, zerbitzu hori Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu arruntetan sartzen da, zerbitzua erabili ahal izango dela bermatzeko.

Dokumentu honen asmoa da EAEn bizi diren eta 2010ean HBE bat egin zuten emakumeei buruzko datuak eta EAEko eta hiru lurralde historikoetako abortu-tasa deskribatzea.

EAEko biztanle izan arren atzerrian jaio diren eta 2010ean HBE bat egin zuten emakumeei buruzko datuen deskribapena ere egin da.

Bildutako datuek EAEn egindako HBEei buruzko informazioa ematen dute, baita HBE bat egiten duen eta EAEn bizi den emakumearen profil sozio-demografikoa eta egindako prozedurari buruzko informazioa ere. Informazio horretan oinarrituta, gure erkidegoko osasun publikoko eta pribatuko langileek emakumeentzako arreta- eta orientazio-zerbitzuen plangintza egin ahal izango dute eta osasun-prebentzioko eta -hezkuntzako neurriak martxan jarri ahal izango dituzte, HBEak egin beharrik ez izateko ahal den neurrian.



2

Materiala eta Metodoak

Datu hauek 2010an haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroari (Osasun eta Kontsumo Sailean dagoena) jakinarazitako HBEei dagozkien fitxetakoak dira.

HBEak egiteko akreditatutako zentroek egindako prozeduren berri ematen diote erregistroari, aldian-aldian. Datu horiek baliozkotu, kodetu eta prozesatu egiten dira, Osasun, Zerbitzu Sozial eta Berdintasuneko Ministerioak garatutako protokoloaren eta aplikazio informatikoaren arabera. Urtean behin, datuak behin betiko araztutakoan, gure erkidegoan egindako etenduren fitxategia bidaltzen zaio Osasun, Zerbitzu Sozial eta Berdintasuneko Ministerioari, eta hark, ondoren, EAEko HBEen erregistrora bidaltzen ditu HBEa beste erkidegoren batean egin zuten EAEko emakumeen datuak.

2000. urtean, Osakidetzako ospitalean egindako HBEen arrazoia jasotzen hasi ziren, eta Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren 9. berrikuspenaren Aldaketa Klinikoa (CIE-9-MC)¹ ezarritako irizpideen eta arauen arabera kodetzen da.

2007tik aurrera, HBEa egindako emakumearen jatorrizko herrialdea, Espainiara iritsitako urtea eta nazionalitatea sartu ziren aldagaietan. Informazioaren analisia egiteko, aldagai horiek ondo jaso zituzten zentroak soilik hartu ziren kontuan 2007an eta 2008an. 2009an eta 2010ean, zentro guztiak hartu dira kontuan.

Zehaztasuna neurtzeko adierazle bakar bat dugu —ospitaleko alden erregistroan jasotako HBEak eta Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistrora iristen direnak alderatzea, hain zuzen—, eta zentro publikoetarako soilik balio du.

Adin-talde baten abortu-tasa da adin-talde horretako 1.000 emakumeko dagoen HBE-kopurua. Borondatezko abortuen tasa da ugaltzeko adinean (15-44 urte) dauden 1.000 emakumeko dagoen HBE-kopurua. Ugaltzeko adinaren tarte 15 urtetik 44 urtera bitartekoa dela jo da, Osasun, Zerbitzu Sozial eta Berdintasuneko Ministerioaren eta Osasun eta Kontsumo Sailaren argitalpenekin bat etorri^{2,3,4}.

¹ Idazkaritza Tekniko Nagusia. *Osasun eta Kontsumo Ministerioa. Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena. Aldaketa Klinikoa*, 9. berrikuspena, 7. argitalpena. Urtarrila. 2010, Madril.

² Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusia. Osasun, Zerbitzu Sozial eta Berdintasunerako Ministerioa. *Haurdunaldiaren borondatezko etendura*. 2010eko behin betiko datuak. Madril. Osasun, Zerbitzu Sozial eta Berdintasunerako Ministerioa.

³ Osasun Plangintza eta Ebaluaziorako Zuzendaritza Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. *Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroa. Lanerako dokumentua: Euskal Autonomia Erkidegoan 2008an egindako haurdunaldiaren borondatezko etendurak*.

⁴ Osasun Plangintza eta Antolamendurako Zuzendaritza Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. *Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroa. Lanerako dokumentua: Euskal Autonomia Erkidegoan 2009an egindako haurdunaldiaren borondatezko etendurak*.

Tasak kalkulatzeko, berriz, Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, argitaratutako 2020ko biztanleria-proiekzioak erabili dira. Datu horiek 2011ko ekainaren 30ean aldatu zituzten azkenekoz, eta erabilgarri daude www.eustat.es webgunean (2011ko azaroa).

Espainiako eta beste erkidego batzuetako tasak, azkenik, Osasun, Zerbitzu Sozial eta Berdintasuneko Ministerioaren urteroko argitalpenetik lortu dira.

3 Emaizak

2010ean, 3.570 HBE jakinarazi zitzaizkion EAeko erregistroari; erregistroa sortu zenetik izan den kopuru handiena da hori. EAeko zentroetan, beste erkidego batzuetako 681 emakumeri egin zitzaion etendura (ikus **1. taula**). Hori da beste erkidegoetako biztanleei orain arte egindako etendura-kopuru handiena. Erkidego horietako gehienak mugakideak dira: Nafarroa (% 75,9), Errioxa (% 11,0) eta Kantabria (% 6,5). EAEn bizi diren 3.388 emakumek egin dute HBE bat, izan gure erkidegoan, izan beste erkidego batzuetako zentroetan, eta horiei buruzkoak dira hemengo emaitzak.

1. taula. EAeko erregistroari jakinarazitako Haurdunaldiaren Borondatezko Etendura guztiak, eta EAEn bizi diren emakumeei egindakoak. 2010

| URTEA | EAEn egindako HBE-kopurua* | | EAEn bizi direnei egindako HBE-kopurua | |
|----------------|----------------------------|---|--|--|
| 2010 | EAEn bizi diren emakumeei | Beste autonomia erkidego batzuetan bizi diren emakumeei | EAeko zentroetan | Beste autonomia erkidego batzuetako zentroetan |
| | 3.266 | 681 | 3.266 | 122 |
| GUZTIRA | 3.947 | | 3.388 | |

*EAEn bizi diren emakumeei eta beste autonomia erkidego batzuetan bizi direnei

HBEen berri eman zuten EAeko 7 zentro publikok eta 7 pribatuk. Pribatuetako bat irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, eta, beraz, diru publikoz finantzaturia (1. eranskina).

2. taulan, 2010ean HBE bat egin zuten emakumeen ezaugarri sozio-demografikoak eta prozedurari buruzko datuak daude. Hala, HBE gehien 25-29 urteko emakumeek egin zituzten, eta, ondoren, 20-24 urtekoak. 373 emakume (% 11) 20 urtez azpikoak ziren.

Bikotearekin bizi direnen eta ez direnen artean, ez dago alderik. Laneko egoerari dagokionez, % 60 lanean ari zen, % 16 langabezian zegoen, eta % 14 ikasleak ziren. Hezkuntza-mailari erreparatuz gero, erdiak (% 60) bigarren mailako/bigarren zikloko ikasketak edo goragokoak zituen edo horrelako ikasketak egiten ari zen; eta horien artean, % 21,2k unibertsitate-ikasketak zituen edo unibertsitate-ikasketak egiten ari zen.

2. taula. HBEa egin duten EA Eko emakumeen ezaugarriak (EAEn bizi direnak) eta ebakuntzari buruzko datuak, adin-taldearen arabera. 2010


| | Kopurua, guztira | % | ADIN-TALDEAK | | | | | | | |
|---|---------------------|-------|--------------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|------|
| | | | <15 | 15-19 | 20-24 | 25-29 | 30-34 | 35-39 | 40-44 | >44 |
| Guztira | 3.388 | | 18 | 355 | 718 | 804 | 702 | 557 | 221 | 13 |
| % | | | %0,5 | %10,5 | %21,2 | %23,7 | %20,7 | %16,4 | %6,5 | %0,4 |
| Bikotekidearekin bizi da | | | | | | | | | | |
| Bai | 1.584 | %46,8 | 0 | 47 | 220 | 381 | 408 | 369 | 153 | 8 |
| Ez | 1.647 | %48,6 | 16 | 303 | 471 | 393 | 252 | 153 | 56 | 3 |
| Ezezaguna | 155 | %4,6 | 2 | 5 | 27 | 30 | 42 | 35 | 12 | 2 |
| Lan-egoera | | | | | | | | | | |
| Enpresaburua | 55 | %1,7 | 0 | 0 | 4 | 4 | 16 | 18 | 13 | 0 |
| Soldatapekoa | 1.972 | %58,2 | 2 | 47 | 365 | 551 | 468 | 372 | 159 | 8 |
| Pentsioduna | 5 | %0,1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 2 | 2 | 0 |
| Ikaslea | 464 | %13,7 | 14 | 245 | 149 | 43 | 9 | 4 | 0 | 0 |
| Langabea | 550 | %16,2 | 0 | 49 | 147 | 139 | 110 | 83 | 19 | 3 |
| Etxeko lanak | 205 | %6,1 | 0 | 9 | 40 | 43 | 52 | 41 | 18 | 2 |
| Beste batzuk | 13 | %0,4 | 1 | 0 | 1 | 3 | 4 | 3 | 1 | 0 |
| Daturik ez | 124 | %3,7 | 1 | 5 | 12 | 21 | 42 | 34 | 9 | 0 |
| Heziketa-maila | | | | | | | | | | |
| Analfabetoa edo ikasketarik gabea | 108 | %3,2 | 0 | 7 | 17 | 30 | 32 | 14 | 8 | 0 |
| 1. maila | 593 | %17,5 | 7 | 70 | 151 | 133 | 110 | 85 | 34 | 3 |
| 2. maila, 1. zikloa | 558 | %16,5 | 6 | 58 | 102 | 141 | 116 | 91 | 41 | 3 |
| 2. maila, 2. zikloa | 1.278 | %37,7 | 5 | 177 | 287 | 301 | 254 | 200 | 49 | 5 |
| 3. maila (eskola) | 460 | %13,6 | 0 | 32 | 99 | 109 | 99 | 82 | 39 | 0 |
| 3. maila (fakultatea) | 292 | %8,6 | 0 | 4 | 48 | 67 | 62 | 65 | 44 | 2 |
| Daturik ez | 99 | %2,9 | 0 | 7 | 14 | 23 | 29 | 20 | 6 | 0 |
| Bizirik dauden seme-alaben kopurua | | | | | | | | | | |
| Bat ere ez | 1.688 | %49,8 | 17 | 319 | 493 | 393 | 266 | 152 | 45 | 3 |
| Bat | 835 | %24,6 | 0 | 33 | 160 | 223 | 203 | 154 | 58 | 4 |
| Bi | 577 | %17,0 | 0 | 0 | 15 | 40 | 54 | 61 | 27 | 1 |

.../...

.../...

| | | | | | | | | | | |
|---|-------|-------|----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|----|
| Hiru | 198 | %5,8 | 0 | 0 | 1 | 11 | 17 | 14 | 9 | 1 |
| Lau edo gehiago | 88 | %2,5 | 0 | 0 | 2 | 13 | 22 | 25 | 20 | 1 |
| Ezezaguna | 7 | %0,2 | 0 | 0 | 1 | 1 | 2 | 3 | 0 | 0 |
| Aurrez borondatez etendako haurdunaldien kopurua | | | | | | | | | | |
| Bat ere ez | 2.469 | %72,9 | 18 | 316 | 531 | 539 | 486 | 403 | 164 | 12 |
| Bat | 633 | %18,7 | 0 | 32 | 140 | 188 | 146 | 97 | 30 | 0 |
| Bi | 192 | %5,7 | 0 | 3 | 35 | 55 | 47 | 35 | 16 | 1 |
| Hiru edo gehiago | 90 | %2,7 | 0 | 3 | 10 | 22 | 23 | 21 | 11 | 1 |
| Ezezaguna | 4 | %0,1 | 0 | 1 | 2 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| Haurdunaldi-asteak | | | | | | | | | | |
| 8 edo gutxiago | 2.223 | %65,6 | 10 | 232 | 510 | 551 | 461 | 323 | 128 | 8 |
| 9-12 | 829 | %24,5 | 7 | 94 | 188 | 200 | 157 | 128 | 52 | 3 |
| 13-16 | 161 | %4,8 | 0 | 20 | 9 | 26 | 35 | 48 | 23 | 0 |
| 17-20 | 115 | %3,4 | 1 | 3 | 8 | 17 | 31 | 40 | 14 | 1 |
| 21 edo gehiago | 60 | %1,8 | 0 | 6 | 3 | 10 | 18 | 18 | 4 | 1 |
| Haurdunaldia eteteko arrazoia | | | | | | | | | | |
| Amaren osasunerako arriskua (1985 Legea) | 1.473 | %92,9 | 4 | 161 | 345 | 371 | 293 | 208 | 85 | 6 |
| Fetuarentzako arriskua (1985 Legea) | 112 | %7,1 | 0 | 1 | 5 | 9 | 35 | 46 | 15 | 1 |
| Bortxaketa (1985 Legea) | 1 | %0,0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Emakumeak eskatuta (2010 Legea) | 1.672 | %92,8 | 14 | 191 | 366 | 405 | 334 | 256 | 100 | 6 |
| Emakumearen osasunerako arrisku larria (2010 Legea) | 15 | %0,8 | 0 | 0 | 1 | 6 | 3 | 2 | 3 | 0 |
| Anomalia larriak izateko arriskua edo fetuak bizirik jarraitzea galarazten dutenak (2010 Legea) | 115 | %6,4 | 0 | 1 | 1 | 13 | 37 | 45 | 18 | 0 |
| Ebakuntza egiteko erabilitako teknika | | | | | | | | | | |
| Xurgatzea | 1.569 | %46,3 | 4 | 161 | 350 | 393 | 323 | 234 | 96 | 8 |
| Dilatazioa | 57 | %1,7 | 0 | 3 | 3 | 7 | 15 | 23 | 5 | 1 |
| Legratua | 536 | %15,8 | 7 | 55 | 90 | 99 | 111 | 124 | 49 | 1 |
| Ru-486 | 1.124 | %33,2 | 6 | 125 | 268 | 291 | 231 | 143 | 58 | 2 |
| Zain barneko injekzioa | 16 | %0,5 | 0 | 4 | 1 | 6 | 2 | 2 | 1 | 0 |
| Beste batzuk | 86 | %2,5 | 1 | 7 | 6 | 8 | 20 | 31 | 12 | 1 |

1. grafikoa. Metodo antikonzeptiboak erabiltzeko osasun-zentroetara jo EZ* eta HBEa egin duen emakumeen ehunekoa, adinaren arabera. EAE 2010




*2010ean, aldagai hau ezezaguna gisa bete duten kasuak kendu egin dira, guztizkoaren %11,7 baitira.

la erdiek ez zuten haurrik, eta % 27k lehenagotik egina zuten HBEren bat. Emakumeen % 67,1 ez zen inolako osasun-zentro edo -zerbitzutara joan antisorgailuen erabilera edo kontrolerako, HBEa egin aurreko bi urteetan. (1. grafikoa).

HBE bat egin duten emakumeen artean aurreko bi urteetan familia-plangintzako zentroren batera joan ez direnen ehunekoak zer bilakaera izan duen ageri da 2. grafikoan. Azterketa hori egin den urte guztietan, emakume gazteenek erabili dituzte gutxien familia-plangintzako baliabideak.

Aurreko urteetan bezala, haurdunaldiaren lehen zortzi asteetan egin ziren HBEen bi heren.

2. grafikoa. HBEa egin eta aurreko bi urtean familia-plangintzako zentroetara * jo EZ duten emakumeen ehunekoa, adin-taldearen arabera. EAE 1997-2010




*2010ean, aldagai hau ezezaguna gisa bete duten kasuak kendu egin dira, guztizkoaren %11,7 baitira.

HBEa egiteko arrazoiei buruzko azterketa bialdi berezietan egin da. Lehen, uztailearen 4a bitarte, eta bigarrena, berriz, uztailearen 5etik aurrera, orduan sartu baitzen indarrean sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko lege berria. Lehen aldirian, kasuen %92,9k haurdunaren osasun fisiko edo psikikorako arriskua eman zuten arrazoi HBEa egiteko; fetuaren arriskua, berriz, % 7,1ek. Lege berria indarrean sartu ondoren, ordea, HBEen % 92,8 emakumeak eskatuta egin ziren, % 0,8 emakumearen osasuna arrisku larrian zegoelako, eta % 6,4 fetuak anomalia larriak edo haren bizitzarekin bateraezinak zituelako.

Gehienetan aspirazioa erabili zen (% 46,3), eta, ondoren, RU-486 teknika (% 33,2); banaketa hau aurreko urtekoetakoen antzekoa da.

EAEn bizi diren emakumeei Osakidetzako eta Euskal Herriko zentro pribatuak ospitaleetan egin zaizkien HBEen bilakaera ageri da **3. grafikoan**. Ez dira kontuan hartu EAN bizi diren emakumeei beste erkidego batzuetan egin zaizkienak, ez baititugu zentro horietako datuak ezagutzen.

3. grafikoa. EAEn bizi diren emakumeei * egindako HBE-kopurua, Osakidetzaren ospitaleetan eta EAeko zentro pribatuetan. EAE 1999-2010



* Ez dira sartu EAEn bizi diren emakumeei beste autonomia erkidego batzuetako zentroetan egindako HBEak, ez dakigulako zer zentroetan egin diren.

2010ean HBE bat egin zuten emakume guztien % 40,9 (1.384) atzerrian jaiotakoak ziren. EAEn bizi diren eta 2010ean HBE bat egin zuten atzerriko emakume horien jaioterria eta Espainiara iritsi ziren urtea ageri dira **3. taulan**. Gehienak Boliviakoak ziren (% 26,8), hurrengoak Kolonbiakoak (% 12,8), Paraguaikoak (% 11,4) eta Errumaniakoak (% 10,7).

Jaioterritik Espainiara iritsi zirenetik pasatutako denborari erreparatuz gero, Boliviako emakumeek (hangoak dira gehienak) bost urtetik gora daramatzate Espainian, eta kolonbiatarrek (zerrendako bigarrenak), berriz, lau urtetik gora. Paragwaitik eta Errumaniatik iritsitakoen artean, berriz, badirudi iristen direnetik HBEa egin arte denbora gutxiago pasatzen dela.

3. taula. Emakume atzerritarra Espainiara iritsi zenetik igarotako urte-kopurua. HBE, 2010. urtea

| ESPAINIAN PASATAKO URTE-KOP. | | | | | | | | | | | | | | | |
|------------------------------|-------------|------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-------------|------------|
| JAIOTERRIA | kop. | % | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 edo gehi | Ezezaguna |
| GUZTIRA | 1384 | | 48 | 128 | 130 | 175 | 190 | 125 | 96 | 81 | 53 | 48 | 65 | 65 | 180 |
| Bolivia | 305 | 22,0 | 1 | 3 | 5 | 32 | 86 | 52 | 40 | 30 | 17 | 2 | 2 | 2 | 33 |
| Kolonbia | 146 | 10,5 | 4 | 10 | 5 | 15 | 10 | 9 | 9 | 7 | 4 | 19 | 21 | 7 | 26 |
| Paraguai | 130 | 9,4 | 5 | 22 | 24 | 29 | 17 | 10 | 3 | 3 | 0 | 0 | 1 | 1 | 15 |
| Errumania | 122 | 8,8 | 10 | 13 | 14 | 14 | 20 | 10 | 12 | 7 | 4 | 2 | 0 | 0 | 16 |
| Ekudador | 91 | 6,6 | 1 | 4 | 10 | 4 | 5 | 1 | 1 | 13 | 12 | 10 | 13 | 6 | 11 |
| Maroko | 71 | 5,1 | 2 | 7 | 5 | 11 | 7 | 2 | 2 | 5 | 4 | 3 | 1 | 9 | 13 |
| Nikaragua | 71 | 5,1 | 2 | 21 | 17 | 17 | 7 | 1 | 0 | 3 | 0 | 0 | 1 | 1 | 1 |
| Brasil | 57 | 4,1 | 2 | 6 | 4 | 5 | 7 | 5 | 7 | 2 | 1 | 1 | 3 | 7 | 7 |
| Peru | 45 | 3,3 | 3 | 4 | 6 | 7 | 8 | 4 | 2 | 0 | 1 | 0 | 1 | 3 | 6 |
| Kuba | 36 | 2,6 | 1 | 1 | 5 | 3 | 2 | 7 | 1 | 2 | 1 | 0 | 0 | 4 | 9 |
| Honduras | 31 | 2,2 | 4 | 12 | 7 | 2 | 5 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Nigeria | 29 | 2,1 | 3 | 2 | 4 | 6 | 1 | 1 | 3 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 4 |
| Txina | 25 | 1,8 | 1 | 2 | 1 | 3 | 2 | 1 | 2 | 0 | 1 | 1 | 8 | 1 | 2 |
| Dominikar Errepublika | 22 | 1,6 | 0 | 1 | 3 | 2 | 0 | 4 | 1 | 0 | 2 | 1 | 1 | 4 | 3 |
| Ginea | 19 | 1,4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 0 | 2 | 2 | 0 | 1 | 1 | 2 | 4 | 2 |
| Venezuela | 18 | 1,3 | 1 | 4 | 4 | 1 | 0 | 1 | 2 | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 | 3 |
| Ekuatore Ginea | 15 | 1,1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 2 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 4 | 1 |
| Kamerun | 14 | 1,0 | 0 | 1 | 1 | 1 | 2 | 0 | 0 | 1 | 0 | 2 | 1 | 0 | 5 |
| Argentina | 13 | 0,9 | 0 | 1 | 1 | 2 | 1 | 2 | 3 | 1 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 |
| Beste herrialde batzuk | 124 | 9,0 | 6 | 13 | 12 | 18 | 9 | 10 | 5 | 5 | 3 | 3 | 7 | 10 | 23 |

4. taulan konparazio bat egin da, EAEn bizi diren eta HBE bat egin duten emakumeen ezaugarrien artean, jaioterriaren arabera. Desberdinak dira atzerrian jaio diren emakumeen profila eta Espainian jaiotakoena. Atzerrikoak gazteagoak dira, gehienak bikotekidearekin bizi dira, hezkuntza-maila txikiagoa dute, eta lanean ari dira, nahiz eta langabetu gehiago eta ikasle gutxiago dagoen Espainiakoekin alderatuta. Alde handienak aurrekari obstetrikotetan dago: atzerriko emakume gehienek aldeztu aurretik haurren bat izan dute, eta Espainiakoe bano gehiagok egin izan dute aurretik beste HBEren bat. Bestalde, atzerrikoek Espainiakoe bano gutxiago erabiltzen dituzte familia-plangintzako zentroak. HBEa egiteko arrazoiei dagokienez, berriz, Espainiakoe kasuen % 5etan bano gehixeagoetan argudiatzen dituzte fetuaren arriskuak, eta atzerrikoek, aldiz, % 0,3an.




4. taula. EAEn bizi eta HBEa egin duten emakumeen ezaugarriak, jaioterriaren arabera. 2010. urtea

| | Jaioterria | |
|--|--------------|--------------|
| | Espainia | Atzerria |
| GUZTIRA % | 59,1% | 40,9% |
| Batez besteko adina | 28,9 | 28,0 |
| | % | % |
| Bikotekidearekin bizi da | | |
| Bai | 43,1 | 52,2 |
| Ez | 52,2 | 43,5 |
| Ezezaguna | 4,7 | 4,3 |
| Lan-egoera | | |
| Enpresaburua | 2,4 | 0,5 |
| Soldatapekoa | 56,2 | 61,1 |
| Ikaslea | 16,8 | 9,3 |
| Langabetua (edo ordaindutako lehenengo lanaren bila) | 14,5 | 18,8 |
| Etxeko lanak | 5,3 | 7,2 |
| Beste zerbaite edo ezezaguna | 4,9 | 3,2 |
| Heziketa-maila | | |
| Ikasketarik gabe | 1,3 | 5,9 |
| 1. maila | 12,8 | 24,4 |
| 2. maila, 1. zikloa | 12,9 | 21,7 |
| 2. maila, 2. zikloa | 37,6 | 37,9 |
| 3. maila (eskola) | 19,0 | 5,8 |
| 3. maila (fakultatea) | 13,4 | 1,7 |
| Ez sailkagarria edo ezezaguna | 3,1 | 2,7 |
| Bere diru-sarrerak ditu | | |
| Bai | 61,4 | 63,1 |
| Ez | 36,2 | 36,1 |
| Ezezaguna | 2,4 | 0,8 |
| Bizirik dauden seme-alaben kopurua | | |
| Bat ere ez | 61,5 | 32,9 |
| Bat | 20,1 | 32,2 |
| Bi | 14,0 | 21,5 |
| Hiru edo gehiago | 4,4 | 14,0 |
| Ezezaguna | 0,1 | 0,4 |

| | Jaioterria | |
|--|------------|----------|
| | Espainia | Atzerria |
| | % | % |
| Aurrez borondatez etendako haurdunaldien kopurua | | |
| Bat ere ez | 79,2 | 63,7 |
| Bat | 15,2 | 23,7 |
| bi edo gehiago | 5,5 | 12,4 |
| Ezezaguna | 0,0 | 0,3 |
| Plangintza-zentroetan ibili da | | |
| Bai Publikoa | 22,5 | 18,0 |
| Bai Pribatua | 10,9 | 3,0 |
| Bai Beste batzuk | 0,8 | 0,8 |
| Ez | 56,2 | 63,5 |
| Ezezaguna | 9,6 | 14,7 |
| Haurdunaldi-asteak | | |
| 8 edo gutxiago | 63,7 | 68,4 |
| 9 -12 | 22,3 | 27,7 |
| 13 -16 | 6,5 | 2,2 |
| 17 -20 | 5,0 | 1,0 |
| 21 edo gehiago | 2,5 | 0,7 |
| Haurdunaldia eteteko arrazoia | | |
| Amaren osasunerako arriskua (1985 Legea) | 41,8 | 45,9 |
| Fetuarentzako arriskua (1985 Legea) | 5,4 | 0,3 |
| Bortxaketa (1985 Legea) | 0,1 | 0,0 |
| Emakumeak eskatuta (2010 Legea) | 46,6 | 53,4 |
| Emakumearen osasunerako arrisku larria (2010 Legea) | 0,5 | 0,4 |
| Anomalia larriak izateko edo bizitzarekin bat ez datozenak izateko arriskua (2010 Legea) | 5,7 | 0,0 |
| Ebakuntza egiteko erabilitako teknika | | |
| Xurgatzea | 39,8 | 55,8 |
| Dilatazioa | 2,6 | 0,4 |
| Legratua | 19,3 | 10,8 |
| Ru-486 | 34,0 | 31,9 |
| Zain barneko injekzioa | 0,6 | 0,3 |
| Beste batzuk | 3,7 | 0,8 |

4. grafikoan, abortu-tasa ageri da, adin-taldearen arabera sailkatuta. Aurreko urteetan bezala, abortu-tasa handiena 20-24 urtekoei dagokie: 1.000 emakumeko 14,3.

4. grafikoa. EAEn bizi diren emakumeen Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren tasak, adin-taldearen arabera. EAE 2010



5. taulan, HBEa fetuarentzat arriskua zegoelako egin zen kasuen kausak deskribatu dira. Hala, gehienetan (% 87,2), sortzetiko anomaliak izan ziren kausa (XIV. taldea). Horien artean, berriz, ugariena asaldura kromosomikoak ziren, eta, ondoren, nerbio-sistemaren eta zirkulazio-aparatuaren sortzetiko malformazioak.

Fetuei diagnostikatutako anomalia kromosomikoak ageri dira **6. taulan**. Ugariena Downen sindromea da (kasuen % 67,5), eta bigarren ugariena, lehenengoarekiko alde handiarekin, Edwardsen sindromea (% 13,3).

EAEn bizi diren emakumeei egindako HBE-kopuruak 1993tik izandako bilakaera eta 15-44 urteko emakumeen berriazko tasak ageri dira **7. taulan**. 2010. urteko HBE-tasa (1.000 emakumeko 7,98) erregistroa martxan jarri zenetik izandako handiena da (2009koa baino handixeagoa).

Abortu-tasek 1997tik adin-taldearen arabera izandako bilakaera ageri da **5. grafikoan**. 2010. urtean, adin-tarte guztietan handitu da tasa hori.

1997-2010 urteetan abortu-tasak lurralde historiko bakoitzean izan duen bilakaera ageri da **6. grafikoan**. Azken urtean, pixka bat igo da Gipuzkoan eta Bizkaian, eta nabarmen, Araban.

7. grafikoan, abortu-tasak 1997-2010 urteetan EAEn eta Espainian izan duen bilakaera ageri da. Bilakaera paraleloa da urte horietan guztietan; EAEkoa beti da txikiagoa. Azken urtean pixka bat igo da tasa, bai EAN, bai Espainian, baina azken horretan, gutxiago.

EAEko tasa gainerako erkidegoko tasekin alderatuz gero, EAEkoa, 2009an bezala, seigarren ageri da, gutxien egiten direnetik zenbatzen hasita (**8. grafikoa**).

5. taula. EAEn bizi diren emakumeek haurdunaldia eteteko kausak, arrazoia "Fetua tara larriekin jaioko dela uste izatea" izan denean. 2010. urtea

| TALDEA | GNS 9-AK | | Kop. | % |
|----------------|-------------|---|------------|--------------|
| I | (0-139) | Gaixotasun infekziosoak | 1 | 0,4 |
| II | (140-239) | Neoplasiak | 5 | 2,1 |
| III | (240-279) | Gaixotasun endokrinoak eta immunitate-trastornoak | 1 | 0,4 |
| VI | (320-326) | Nerbio-sistemako gaixotasunak | 3 | 1,3 |
| XIV | (740-759) | Sortzetiko anomaliak | 204 | 87,2 |
| | (740-742) | Nerbio-sistemako sortzetiko malformazioak | 33 | |
| | (745-747) | Zirkulazio-aparatuko sortzetiko malformazioak | 20 | |
| | 748 | Arnas sistemako sortzetiko malformazioak | 2 | |
| | 753 | Gernu-sistemako sortzetiko malformazioak | 7 | |
| | (754-756) | Sist. osteomuskularreko sortzetiko malformazioak | 10 | |
| | 758 | Anomalia kromosomikoak | 120 | |
| | (757-759) | Sortzetiko beste malformazio batzuk | 12 | |
| XV | (760-779) | Gaixotasun perinatalak | 17 | 7,3 |
| | 761 | Oligoamnioak RPMrekin edo gabe | 14 | |
| XVI | (780-799) | Gaizki definitutako kausak | 1 | 0,4 |
| | (E800-E999) | Kanpoko lesio- edo intoxikazio-kausak | 2 | 0,9 |
| Guztira | | | 234 | 100,0 |

234 diagnostikoak 227 kasurenak dira; izan ere, HBE batek anomalia edo malformazio bat baino gehiago izan ditzake.


6. taula. EAEn bizi diren emakumeei egindako haurdunaldi etenduretan agertutako anomalia kromosomikoen maiztasuna, "fetu atala larriekin jaioko dela uste izan" denean. 2010. urtea

| GNS-9 AK-ren diagnostikoa | Kop. | % |
|---|------------|------|
| (758.0) Down-en sindromea | 81 | 67,5 |
| (758.2) Edwards-en sindromea | 16 | 13,3 |
| (758.6) Disgenesia gonadala edo Turner-en sindromea | 7 | 5,8 |
| (758.8) Anomalia kromosomikoek sortutako beste zenbait afekzio | 6 | 5,0 |
| (758.9) Zehaztu gabeko anomalia kromosomikoek sortutako afekzioak | 4 | 3,3 |
| (758.1) Patau-ren sindromea | 2 | 1,7 |
| (758.7) Klinefelter-en sindromea | 2 | 1,7 |
| (758.5) Anomalia autosomikoek sortutako beste zenbait afekzio | 1 | 0,8 |
| (758.3) Delekzio autosomikoak sortutako sindromea | 1 | 0,8 |
| Guztira | 120 | |


7. taula. Haurdunaldiaren Borondatezko Etendura-kopurua eta tasa*. EAE, 1993-2010

| AÑO | Nº IVE | TASA |
|------|--------|------|
| 1993 | 1.283 | 2,60 |
| 1994 | 1.174 | 2,37 |
| 1995 | 1.256 | 2,55 |
| 1996 | 1.278 | 2,59 |
| 1997 | 1.301 | 2,64 |
| 1998 | 1.305 | 2,64 |
| 1999 | 1.435 | 2,91 |
| 2000 | 1.653 | 3,34 |
| 2001 | 1.646 | 3,33 |
| 2002 | 1.804 | 3,92 |
| 2003 | 1.798 | 3,93 |
| 2004 | 1.997 | 4,43 |
| 2005 | 2.383 | 5,34 |
| 2006 | 2.586 | 5,86 |
| 2007 | 2.955 | 6,89 |
| 2008 | 2.996 | 6,89 |
| 2009 | 3.023 | 7,03 |
| 2010 | 3.388 | 7,98 |


5. grafikoa. EAEn bizi diren emakumeen Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren tasak, adin-taldearen arabera. EAE 1997-2010




6. grafikoa. EAEn bizi diren emakumeen Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren tasa, bizi diren lurralde historikoaren arabera. EAE 1997-2010



7. grafikoa. Aborto-tasen bilakaera, Espainian eta EAEn. 1997- 2010.



8. grafikoa. Aborto-tasa, emakumeak bizi diren autonomia-erkidegoaren arabera. 2010. urtea



4 Iruzkinak

Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroa jakinarazpenetan oinarritzen da, eta, beraz, jakina da balitekeela egin direnak baino gutxiago deklaratzeko. Horrek eragiten du tasak⁵ behar baino txikiagoak izatea, nahiz eta beste lan batzuen arabera⁶ alborapen hori jakinarazpenetan oinarritutako erregistro guztietan gertatzen den. Hala eta guztiz ere, urte horietan metodologia berari eutsi diogunez, tasa horiek alderatu ditzakegu.

Estalduraren zehaztasuna neurtzeko kalitateko irizpide bakar bat dugu: EAEko ospitale publikoetan neurtzea. Baina erkidego honetan egiten diren HBE guztien % 6,5 besterik ez dira horiek.

EAEEn bizi den eta haurdunaldia borondatez eten duen emakume baten profil sozio-demografikoa aurreko urteetako antzekoa da. 2009an adinak goranzko joera bat izan zuen, baina 2010ean ez da horrelakorik ageri, eta talde ugariena 20-24 urte dituztenena da.

Emakume gazteenak joan dira gutxien osasun-zerbitzuetara metodo antisorgailuak erabiltzeko edo kontrolatzeko HBEa egin aurreko bi urteetan, eta datu hori urteetan mantendu da. Hala, garrantzi handia du sexu- eta ugalketa-osasuna sustatzeko ahalegina egiten jarraitzeak.

Osakidetzako ospitaletan egindako HBE gehienak (% 96,8) fetuaren arriskuagatik egin ziren. Beste autore batzuek diotenez⁷, EAEen erlazio argia dago HBE egiteko arrazoien eta HBEa egiten den zentroaren artean.

HBEa egiteko arrazoia fetuaren osasunarekin erlazionatua zegoen kasuetan, 10etik ia 9tan sortzetiko anomaliak zeuden; datu hori antzekoa da aurreko urteetan. Kasu horietako gehienetan anomalia kromosomikoak ziren, nagusiki Downen sindromea. Autore batzuen arabera⁸, azken urteetan anomalia horren maiztasuna gutxiagotu egin da jaiotzetan, HBEa legeztatu delako.

Eurocatek⁹ (European Surveillance of Congenital Anomalies) emandako 2009ko datuen arabera, erregistratu diren sortzetiko 18.024 anomalietatik 3.184 (% 17,7) jaiotzetik diagnostikatu ziren, eta HBE batekin amaitu.

⁵ MacMahon B, Pugh TF. *Epidemiology principles and methods*. Boston: Little Brown and Company; 1970.

⁶ Rodríguez C, Sendra JM, Regidor E, Gutierrez JL, Iñigo J. *Propuesta de un método para estimar la subnotificación del aborto inducido practicado en España*. Gaceta Sanitaria 1994;8:63-70.

⁷ Uría M, Mosquera C. *Legal abortion in Asturias (Spain) after 1.985 law: Sociodemographic characteristics of women applying for abortion*. Eur. J. Epid 1.999; 15: 59-64.

⁸ Martínez-Frías ML, Bermejo E. *Frequency and trends of congenital defects in Spain: usefulness and significance of different frequencies*. Med Clin (Barc). 1999 Oct 16; 113(12) 459-62.

⁹ EUROCAT Website Database: <http://www.eurocat-network.eu> (data uploaded 06/12/2011)

2001 ean hasi ziren RU-486 metodoa erabiltzen HBEak egiteko. Ordutik, prozeduren heren batean erabili izan da EAEn, baina ez horrela Espainian, non nabarmen gutxiago erabili baita hasieratik (2010ean, HBEen % 5en).

2010ean, lege berria indarrean sartu zen, eta zerbitzu hau Osasun Sistema Nazionaleko eskaintzetan sartu zuten; hala, prozedura hauek finantzatzen hasi zen, emakumeek finantzazio hori eskatzen zuten kasuetan. Jakinarazitako HBE-kopurua egindakoena baino txikiagoa bada benetan, kasuak osasun-zirkuitu publikoan sartu izanak gutxitu egin lezake alde hori. Bestalde, 2009an baino handiagoa da atzerriko emakumeen ehunekoa: % 37,7 izatetik % 40,9 izatera pasatu dira, eta adin-tarte guztietan izan du eragina.

2010ean, atzerrian jaiotako emakumeak 1.498 izatera iritsi ziren, hots, EAEn bizi ziren eta HBE bat egin zuten emakumeen % 40,9. Hala, pentsa liteke horrek azaltzen duela EAeko HBE-tasaren gehikuntza sorterriari buruzko daturik jaso ez zen azken urteetan. Zaila da benetan zer eragin izan duen jakitea, ezin baita jakin emakume etorkin guztiak erroldan dauden edo ez, eta, hala ez balitz, orduan ez lirateke egongo EAEn bizi diren emakumeen artean.

Erkidego guztiak kontuan hartuta, 2010ean egindako HBEen % 41,7 atzerrian sortutako emakumeek egin zituzten. EAEn ehuneko hori txikixeagoa izan da: % 40,9. Gainerako erkidegoei dagokienez, berriz, kasu gehien dituztenei eta, beraz, guztizkoan pisu handiena dutenei erreparatuz gero, hauek dira HBE bat egin zuten eta atzerrian sortuak diren emakumeen proportzioak: Madrilen, % 59,5; Katalunian, % 53; Valentzian, % 38,8; eta Andaluzian, % 30,2.

Hori horrela, atzerriko eta Espainiako emakumeen arteko alde handiena aurrekari obstetrikokoak dira: atzerriko gehienek badituzte haurrak, eta Espainiakoek baino proportzio handiagoan zuten lehendik egina HBEren bat.

Bibliografia

- Idazkaritza Tekniko Nagusia. Osasun eta Kontsumo Ministerioa. *Gaixotasunen Nazioarteko Saiklapena. Aldaketa Klinikoa*, 9. berrikuspena, 7. argitalpena. Urtarrila. 2010, Madril.
- Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusia. Osasun, Zerbitzu Sozial eta Berdintasunerako Ministerioa. *Haurdunaldiaren borondatezko etendura. 2010eko behin betiko datuak*. Madril. Osasun, Zerbitzu Sozial eta Berdintasunerako Ministerioa.
- Osasun Plangintza eta Ebaluaziorako Zuzendaritza Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. *Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroa. Lanerako dokumentua: Euskal Autonomia Erkidegoan 2008an egindako haurdunaldiaren borondatezko etendurak*.
- Osasun Plangintza eta Antolamendurako Zuzendaritza Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. *Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroa. Lanerako dokumentua: Euskal Autonomia Erkidegoan 2009an egindako haurdunaldiaren borondatezko etendurak*.
- MacMahon B, Pugh TF. *Epidemiology principles and methods*. Boston. Little Brown and Company, 1970.
- Rodríguez C, Sendra JM, Regidor E, Gutierrez JL, Iñigo J. *Propuesta de un método para estimar la subnotificación del aborto inducido practicado en España*. Gaceta Sanitaria 1994;8:63-70.
- Uría M, Mosquera C. *Legal abortion in Asturias (Spain) after 1.985 law: Sociodemographic characteristics of women applying for abortion*. Eur. J. Epid 1.999; 15: 59-64.
- Martínez-Frías ML, Bermejo E. *Frequency and trends of congenital defects in Spain: usefulness and significance of different frequencies*. Med Clin (Bartzelona). 1.999ko urriaren 16a; 113(12) 459-62.
- EUROCAT Website Database: <http://www.eurocat-network.eu> (data uploaded 06/12/2011)



Esker onak

Haurdunaldiaren borondatezko etendurak egiten dituzten zentroetako langile guztiei, datuak zehaztasun handiz jasotzeagatik eta bidaltzeagatik.

1. ERANSKINA. Haurdunaldiaren borondatezko etenduren jakinarazpenak egin dituzten zentroak. EAE 2010

ARABA

Arabako Ospitale Unibertsitarioa
Echevarría doktoarearen klinika

GIPUZKOA

Debagoieneko ospitalea
Donostia ospitalea
Prada doktoarearen kontsultategia
Askabide
Mendaroko ospitalea
Zumarragako ospitalea

BIZKAIA

Gurutzetako ospitalea
Basurtuko ospitalea
Euskalduna klinika
Lasaitasuna
Errekaldeberriko modulu psikosoziala
Carlton klinika ginekologikoa

Eranskinak

2. ERANSKINA. Emakume-kopurua, adin-tarteka, bizi diren lurralde historikoaren arabera. EAE, 2010.

| | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|----------------|---------------|----------------|----------------|
| 15-19 | 6.200 | 22.000 | 13.300 |
| 20-24 | 7.700 | 27.300 | 15.200 |
| 25-29 | 10.700 | 36.300 | 19.800 |
| 30-34 | 13.200 | 46.000 | 26.400 |
| 35-39 | 13.600 | 48.300 | 28.300 |
| 40-44 | 12.900 | 46.700 | 27.000 |
| Guztira | 64.300 | 226.600 | 130.000 |

Iturria: EUSTAT, 2011/06/30ean.

